Kontratuen erregistroa 2023ko apirilean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko apirilean 37.950 pertsona kontratatu dira, joan den urteko apirilean baino 4.078 gutxiago (% 9,7ko beherakada). Martxoarekin alderatuta, murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 5.095 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 11,8ko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 18.848 gizonezko eta 19.102 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan, 2.092 gizon gutxiago kontratatu dira eta emakumeen kasuan, 1.986 gutxiago.

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,17 da, eta baxuagoa da gizonena (35,98) emakumezkoena baino (36,36). Arabakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,20), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (36,71).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 32,95 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43 urtetik gorakoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,94 eta 36,82 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 35,93 urte baitituzte gizonezkoen 32,96n aurrean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino zaharragoak dira (36,69 vs 35,92).

• JATORRIA

2023ko apirilean kontratatutako pertsonen % 19,6k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 1,6 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 53,8k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 13k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 11k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa, % 7,9k Europako Erkidegokoa ez den herrialde batekoa, % 7,9ko portzentaia dute Europako Erkidegoko herrialde batetik etorritakoek eta, azkenik, % 6,5ekoa Asiatik etorritakoek. Bertakoak atzerritarrak baino zaharragoak dira (36,24 eta 35,90 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldeko herrialde batetik heldutako pertsonak dira gazteenak (34,27 urte) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batetik heldutakoak, zaharrenak (38,08 urte).

Azken hilabeteko datuei erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen kopurua. Gehien murriztu den atzerritar taldea, balio absolutuetan, Latinoamerikako herrialderen batetik etorritakoena izan da: 611 pertsona gutxiago kontratatu dira (% 13,2ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada handiena Asiatik etorritako taldean gertatu da, % 23,4 murriztu baita (150 pertsona gutxiago).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen kopurua Latinoamerikatik etorritakoen artean izan ezik; horien kasuan, 125 pertsonatan hazi da kontratazioa (% 5,7ko hazkundea). Murrizketa handiena, balio absolu-

tu zein erlatiboetan, Europar Erkidegoko ez den herrialdeko taldeak jasan du; 128 pertsona gutxiago eta % 17,8ko jatsiera.

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,6k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %23,1ek batxilergoko ikasketak egin ditu, % 17,4k unibertsitatekoak eta % 17,1ek Lanbide Heziketako ikasketak.

Hileko erreferentzian, profil guztietako pertsonen kontratazioak egin du behera. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituztenak izan dira (-1.977 pertsona, % 11,1eko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak izan du beherakada nabarmenena (% 19,4ko jaitsiera, 1.595 pertsona gutxiago).

Urteko erreferentzian, ikasketa mota guztien kontratazioa murriztu egin da. Beherakada handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-1.816 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 10,3ko murrizketa).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko apirilean zehar kontratazio kopurua 51.660 izan da EAEn, horietatik 13.141 (% 25,4) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabeen ehunekoa handia izan da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du; iaz onartutako lan-erreformaren isla da, eta, badirudi, lege hau emaitzak lortzen ari dela ildo horretan. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 28,3 eta % 22,7, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 14,9 murriztu da aurreko hilabetearekiko (9.084 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere murriztu egin da (% 4,9 eta 2.680 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera handienak manufaktura industrian (-1.436), ostalaritzan (-1.333), eta hezkuntzan (-1.260) izan dira. Aitzitik, igoera bakarrak osasun jardueretan (+603) eta energian (+3) baino ez dira gertatu.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak behera egin du batez ere merkataritzan (-1.522) eta manufaktura industrian (-722). Haatik, gehien hazi diren jarduerak hezkuntza (+389) eta osasuna (+378) dira.

• LANBIDEA

Hil arteko erlazioan, kontratazioak behera egin du lanbide guztietan. Balio absolutuetan, kontratazioa ez kualifikatuen profilean jaitsi da gehien (-1.346, % 16,6ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, jaitsierarik handiena laguntzako teknikarien profilean gertatu da, % 22,1ko murrizketa izan baitu (-849 kontratu).

Iazko hilabete beraren aldean, kontratazioak behera egin du batez ere ez-kualifikatuen profilean (-1.803, % 20,3ko jaitsiera) eta industriako kualifikatuen profilean (-691, % 19,9ko beherakada). Beste muturrean, hazkundea handiena zientzietako teknikarien profilean (+522 kontratu, +% 24,6) eta laguntzako teknikarien profilean (+320 kontratu, % 12ko hazkundea) gertatu da.

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2023ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek eta kontratazioen jaitsierek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko apirilean sinatutako kontratuen % 34,5 lanaldi partzialekoak dira, % 45,2 emakumeen kasuan eta % 23,2 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 34,6 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 65,7), beste zerbitzuak (% 52,9) eta hezkuntza (% 48,3). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 53,7), eta gutxien, zuzendaritzakoena (% 5,6).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 19,9 Araban dago, % 49,3 Bizkaian eta gainerako % 30,8 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 774 kontratu gutxiago sinatu dira (% 7ko beherakada); Bizkaian 3.618 kontratu gutxiago (% 12,4 gutxiago) eta Gipuzkoan 4.692 kontratu gutxiago (% 22,8 gutxiago).

Aurreko urtearen aldean, Araban 442 kontratu gehiago sinatu dira; Bizkaian % 6,9 gutxiago (1.899 kontratu gutxiago) eta Gipuzkoan 1.223 gutxiago; azken hau izan da erlatiboki beherakada handiena jasan duen lurraldea (% 7,1eko jaitsiera).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko apirilean sinatutako kontratuen % 24,5 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 33,5 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 15,6 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 17 murriztu dira; 2022ko apirilarekin alderatuta, % 6,8koa izan da beherakada.



		Api-2023	Mar-2023	Api-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	13.141	16.787	16.610	-3.646	-21,72	-3.469	-20,9
	Aldi baterakoa	38.519	43.957	37.730	-5.438	-12,37	789	2,1
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
	Mugagabeen %	25,4%	27,6%	30,6%	-2,20		-5,13	
Sexua	Gizona	25.042	29.938	27.038	-4.896	-16,35	-1.996	-7,4
	Emakumea	26.618	30.806	27.302	-4.188	-13,59	-684	-2,5
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
	Emakumeen %	51,5%	50,7%	50,2%	0,81		1,28	
Mugaga-bea	Gizona	7.097	8.846	8.446	-1.749	-19,77	-1.349	-16,0
	Emakumea	6.044	7.941	8.164	-1.897	-23,89	-2.120	-26,0
	Guztira	13.141	16.787	16.610	-3.646	-21,72	-3.469	-20,9
Aldi batera-koa	Gizona	17.945	21.092	18.592	-3.147	-14,92	-647	-3,5
	Emakumea	20.574	22.865	19.138	-2.291	-10,02	1.436	7,5
	Guztira	38.519	43.957	37.730	-5.438	-12,37	789	2,1
Guztira	Gizona	25.042	29.938	27.038	-4.896	-16,35	-1.996	-7,4
	Emakumea	26.618	30.806	27.302	-4.188	-13,59	-684	-2,5
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
Mugaga-been tasa	Gizona	28,3%	29,5%	31,2%	-1,21		-2,90	
	Emakumea	22,7%	25,8%	29,9%	-3,07		-7,20	
	Guztira	25,4%	27,6%	30,6%	-2,20		-5,13	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.020	5.364	6.035	-1.344	-25,06	-2.015	-33,4
	Aldi baterakoa	13.826	16.273	14.618	-2.447	-15,04	-792	-5,4
	Beste batzuk	33.814	39.107	33.687	-5.293	-13,53	127	0,4
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
	LP tasa	34,5%	35,6%	38,0%	-1,07		-3,46	

Kontratuen erregistroa 2023ko apirilean

		Api-2023	Mar-2023	Api-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Lanaldi partziala	Gizona	5.821	7.200	7.264	-1.379	-19,15	-1.443	-19,9
	Emakumea	12.025	14.437	13.389	-2.412	-16,71	-1.364	-10,2
	Guztira	17.846	21.637	20.653	-3.791	-17,52	-2.807	-13,6
	Gizonen tasa	23,2%	24,0%	26,9%	-0,80		-3,62	
	Emakumeen tasa	45,2%	46,9%	49,0%	-1,69		-3,86	
	Tasa guztira	34,5%	35,6%	38,0%	-1,07		-3,46	
Prestakuntza-koak	Prestakuntzakoak	11	37	8	-26	-70,27	3	37,5
	Beste batzuk	51.649	60.707	54.332	-9.058	-14,92	-2.683	-4,9
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
	Prestakuntzakoak (%)	0,0%	0,1%	0,0%	-0,04		0,01	
L. historikoa	Araba	10.264	11.038	9.822	-774	-7,01	442	4,5
	Bizkaia	25.484	29.102	27.383	-3.618	-12,43	-1.899	-6,9
	Gipuzkoa	15.912	20.604	17.135	-4.692	-22,77	-1.223	-7,1
	EAE	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
Gizonak	Lehen sektorea	365	422	368	-57	-13,51	-3	-0,8
	Erauzketa-industriak	4	19	10	-15	-78,95	-6	-60,0
	Manufaktura-industriak	5.604	6.514	6.056	-910	-13,97	-452	-7,5
	Energia	13	11	4	2	18,18	9	225,0
	Ura	225	261	302	-36	-13,79	-77	-25,5
	Eraikuntza	1.543	2.100	1.809	-557	-26,52	-266	-14,7
	Merkataritza	2.460	3.102	3.122	-642	-20,70	-662	-21,2
	Garraioa	3.499	4.133	3.951	-634	-15,34	-452	-11,4
	Ostalaritza	2.787	3.356	3.000	-569	-16,95	-213	-7,1
	Informazioa eta komunikazioa	1.071	1.511	886	-440	-29,12	185	20,9
	Finantzak eta aseguruak	89	175	111	-86	-49,14	-22	-19,8
	Higiezinen sektorea	20	29	29	-9	-31,03	-9	-31,0
	Zientifikoak eta teknikoak	679	866	706	-187	-21,59	-27	-3,8
	Administraziokoak	2.586	2.606	2.504	-20	-0,77	82	3,3
	Administrazio publikoa	242	390	288	-148	-37,95	-46	-16,0
	Hezkuntza	757	1.146	828	-389	-33,94	-71	-8,6
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.552	1.337	1.287	215	16,08	265	20,6
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.152	1.403	1.284	-251	-17,89	-132	-10,3
	Beste zerbitzu batzuk	302	451	377	-149	-33,04	-75	-19,9
	Etxeetako jarduerak	90	105	114	-15	-14,29	-24	-21,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	1	2	1	100,00	0	0,0
	Guztira	25.042	29.938	27.038	-4.896	-16,35	-1.996	-7,4
Emakumeak	Lehen sektorea	35	29	55	6	20,69	-20	-36,4
	Erauzketa-industriak	1	4	2	-3	-75,00	-1	-50,0
	Manufaktura-industriak	1.885	2.411	2.171	-526	-21,82	-286	-13,2
	Energia	10	9	8	1	11,11	2	25,0
	Ura	43	41	37	2	4,88	6	16,2
	Eraikuntza	127	182	146	-55	-30,22	-19	-13,0
	Merkataritza	3.420	3.808	4.280	-388	-10,19	-860	-20,1
	Garraioa	737	877	602	-140	-15,96	135	22,4
	Ostalaritza	4.934	5.698	4.640	-764	-13,41	294	6,3
	Informazioa eta komunikazioa	754	1.105	632	-351	-31,76	122	19,3
	Finantzak eta aseguruak	113	206	194	-93	-45,15	-81	-41,8
	Higiezinen sektorea	41	45	51	-4	-8,89	-10	-19,6
	Zientifikoak eta teknikoak	772	907	868	-135	-14,88	-96	-11,1
	Administraziokoak	3.030	3.478	3.023	-448	-12,88	7	0,2
	Administrazio publikoa	438	757	456	-319	-42,14	-18	-3,9
	Hezkuntza	2.177	3.048	1.717	-871	-28,58	460	26,8
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.594	5.206	5.481	388	7,45	113	2,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	866	1.033	898	-167	-16,17	-32	-3,6
	Beste zerbitzu batzuk	564	762	652	-198	-25,98	-88	-13,5
	Etxeetako jarduerak	1.072	1.197	1.388	-125	-10,44	-316	-22,8

Kontratuen erregistroa 2023ko apirilean

		Api-2023	Mar-2023	Api-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Lurraldez kanpoko erakundeak	5	3	1	2	66,67	4	400,0
	Guztira	26.618	30.806	27.302	-4.188	-13,59	-684	-2,5
Guztira	Lehen sektorea	400	451	423	-51	-11,31	-23	-5,4
	Erauzketa-industriak	5	23	12	-18	-78,26	-7	-58,3
	Manufaktura-industriak	7.489	8.925	8.227	-1.436	-16,09	-738	-9,0
	Energia	23	20	12	3	15,00	11	91,7
	Ura	268	302	339	-34	-11,26	-71	-20,9
	Eraikuntza	1.670	2.282	1.955	-612	-26,82	-285	-14,6
	Merkataritza	5.880	6.910	7.402	-1.030	-14,91	-1.522	-20,6
	Garraioa	4.236	5.010	4.553	-774	-15,45	-317	-7,0
	Ostalaritza	7.721	9.054	7.640	-1.333	-14,72	81	1,1
	Informazioa eta komunikazioa	1.825	2.616	1.518	-791	-30,24	307	20,2
	Finantzak eta aseguruak	202	381	305	-179	-46,98	-103	-33,8
	Higiezinen sektorea	61	74	80	-13	-17,57	-19	-23,8
	Zientifikoak eta teknikoak	1.451	1.773	1.574	-322	-18,16	-123	-7,8
	Administraziokoak	5.616	6.084	5.527	-468	-7,69	89	1,6
	Administrazio publikoa	680	1.147	744	-467	-40,71	-64	-8,6
	Hezkuntza	2.934	4.194	2.545	-1.260	-30,04	389	15,3
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.146	6.543	6.768	603	9,22	378	5,6
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.018	2.436	2.182	-418	-17,16	-164	-7,5
	Beste zerbitzu batzuk	866	1.213	1.029	-347	-28,61	-163	-15,8
	Etxeetako jarduerak	1.162	1.302	1.502	-140	-10,75	-340	-22,6
	Lurraldez kanpoko erakundeak	7	4	3	3	75,00	4	133,3
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
Gizonak	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	89	98	75	-9	-9,18	14	18,7
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.647	3.247	2.125	-600	-18,48	522	24,6
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.990	3.839	2.670	-849	-22,12	320	12,0
	Administrazioko langileak	967	1.156	1.026	-189	-16,35	-59	-5,8
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.237	5.831	5.414	-594	-10,19	-177	-3,3
	Oinarrizko kualifikatuak	197	237	151	-40	-16,88	46	30,5
	Industriako kualifikatuak	2.774	3.334	3.465	-560	-16,80	-691	-19,9
	Operadoreak	3.208	3.918	3.377	-710	-18,12	-169	-5,0
	Kualifikatu gabeak	6.932	8.278	8.735	-1.346	-16,26	-1.803	-20,6
	Guztira	25.042	29.938	27.038	-4.896	-16,35	-1.996	-7,4
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	55	64	51	-9	-14,06	4	7,8
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.274	5.304	3.396	-1.030	-19,42	878	25,9
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.126	2.350	2.147	-224	-9,53	-21	-1,0
	Administrazioko langileak	1.821	2.334	2.097	-513	-21,98	-276	-13,2
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.182	11.997	11.104	-815	-6,79	78	0,7
	Oinarrizko kualifikatuak	16	23	8	-7	-30,43	8	100,0
	Industriako kualifikatuak	370	443	511	-73	-16,48	-141	-27,6
	Operadoreak	585	685	509	-100	-14,60	76	14,9
	Kualifikatu gabeak	6.189	7.606	7.479	-1.417	-18,63	-1.290	-17,2
	Guztira	26.618	30.806	27.302	-4.188	-13,59	-684	-2,5
Guztira	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	144	162	126	-18	-11,11	18	14,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.921	8.551	5.521	-1.630	-19,06	1.400	25,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.116	6.189	4.817	-1.073	-17,34	299	6,2
	Administrazioko langileak	2.788	3.490	3.123	-702	-20,11	-335	-10,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	16.419	17.828	16.518	-1.409	-7,90	-99	-0,6

Kontratuen erregistroa 2023ko apirilean

		Api-2023	Mar-2023	Api-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	213	260	159	-47	-18,08	54	34,0
	Industriako kualifikatuak	3.144	3.777	3.976	-633	-16,76	-832	-20,9
	Operadoreak	3.793	4.603	3.886	-810	-17,60	-93	-2,4
	Kualifikatu gabeak	13.121	15.884	16.214	-2.763	-17,39	-3.093	-19,1
	Guztira	51.660	60.744	54.340	-9.084	-14,95	-2.680	-4,9
ABLE	Gizonak	6.314	7.728	7.005	-1.414	-18,30	-691	-9,9
	Emakumeak	2.988	3.476	2.975	-488	-14,04	13	0,4
	Guztira	9.302	11.204	9.980	-1.902	-16,98	-678	-6,8
Pertsona-kopurua	Gizonak	18.848	21.722	20.940	-2.874	-13,23	-2.092	-10,0
	Emakumeak	19.102	21.323	21.088	-2.221	-10,42	-1.986	-9,4
	Guztira	37.950	43.045	42.028	-5.095	-11,84	-4.078	-9,7
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	15.799	17.776	17.615	-1.977	-11,12	-1.816	-10,3
	Batxilergoa	8.757	9.374	9.608	-617	-6,58	-851	-8,9
	LHko ikasketak	6.486	7.384	7.154	-898	-12,16	-668	-9,3
	Unibertsitate-ikasketak	6.622	8.217	7.340	-1.595	-19,41	-718	-9,8
	Atzerritarra	7.456	8.675	7.596	-1.219	-14,05	-140	-1,8
	Bertakoa	30.494	34.370	34.432	-3.876	-11,28	-3.938	-11,4
	<>	27	33	32	-6	-18,18	-5	-15,6
	Aberrigabea	32	48	44	-16	-33,33	-12	-27,3
	Europako Erkidegoa	504	574	528	-70	-12,20	-24	-4,5
	Erkidegokoa ez den Europa	591	657	719	-66	-10,05	-128	-17,8
	Txina	93	112	73	-19	-16,96	20	27,4
	Japonia	6	4	1	2	50,00	5	500,0
	Asiako beste herrialde bat	391	524	429	-133	-25,38	-38	-8,9
	Saharaz hegoaldeko Afrika	818	868	882	-50	-5,76	-64	-7,3
	Afrikako iparraldea	968	1.209	1.071	-241	-19,93	-103	-9,6
	Ipar Amerika	8	17	16	-9	-52,94	-8	-50,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.015	4.626	3.800	-611	-13,21	215	5,7
	Ozeania	3	3	1	0	0,00	2	200,0
	Atzerritarrak guztira	7.456	8.675	7.596	-1.219	-14,05	-140	-1,8